

# noaia

**Odolaren Mintzoa,  
larunbatean gaztetxean**

**Gure Esku Dago  
taldeari elkarrizketa**

**Kadete mutilen eskubaloi  
taldea, Gipuzkoako  
txapeldunorde**

**Bibi Atutxa zubietarra**

**100 urterekin,  
sasoi betean**



**OGI BERRI**  
ARTISAU OKINAK

**ETA ORAIN...  
IKUSI FUTBOL  
PARTIDUAK  
GUREKIN!**



egunero 06:00tik 21:00ra (asteburutan ere)  
PUNTAPAX KALEA 16 (ARTZABAL)

GOLDWELL  
**ELUMEN**

*i l e a p a i n d e g i*



**mistoa**

Koloraziotan teknika  
berriak eta iraunkorrak

Zubiaurrenea 4. ☎ 943 361 951



**LASER DIODO IRAUNKORRA**  
**LIGHTSHEER® DIODO LASERRAREKIN**

**KIROLARIA BAZERA...** depilazio iraunkorra lortzeko aukera paregabea eskaintzen dizugu:

**EMAKUMEETAN:**

- Hanka osoak 153€ sesioa
- Hanka erdiak 102€ sesioa
- Besoak 99€ sesioa
- Besaurreak 99€ sesioa
- Ingleak (bikini) + besapeak 92€ sesioa
- Ingleak (Pubisa edo Brasildarra) + besapeak 102€ sesioa
- Kokotsa + ezpaina 40€ sesioa

**GIZONETAN:**

- Sorbalda 99€ sesioa
- Sabelaldea + toraxa 153€ sesioa
- Hanka osoak 194€ sesioa
- Hanka erdiak 122€ sesioa
- Besoak 143€ sesioa
- Besaurreak 122€ sesioa

Nagusia 8, USURBIL 943 36 36 41 (egun guztia irekia)  
Kalitatezko produktuekin estilismoa eta estetika lantzen ditugu

**INTZA**  
I L E A P A I N D E G I A  
ESTETIKA ZENTROA

## Albiste iruditan

# Ilusioan garaile, Tximeleta taldeko kideak

**G**imnasiarekin lotutako erakustaldiek ez dute beste jarduerara batzuk izaten duten oihartzun berbera. Baina besteak bezain ikusgarri, besteak bezain erakargarri dira.

Aurreko asteburuan, "Tximeleta taldekoek bigarren aurre-fasea osatu zuten Oiartzungo kiroldegian. Berataratu ginen guztiok, txapelketetara joango diren Tximeletako gimnasta guztien lana ikusteko aukera eduki genuen. Ekitaldi honetan, Donostia, Usurbil, Oiartzun eta Errenterriako 80 gimnastek hartu zuten parte", Tximeletatik aditzera eman digutenez.

"Lan gogorra egin ondoren, ilusio handiarekin aritu ziren epaileen aurrean, haien lana gogotsu defendatuz eta erakustaldi bikaina eginez. Gimnasta guztiei zorte ona opa diegu eta, garrantzitsuena, disfrutatzea eta ilusio handi horrekin jarraitzea".



Erakustaldia eskaini zuen Tximeleta taldeak pasa den asteburuan, Oiartzungo kiroldegian.

## Laburrean

### Ostegun honetarako mus txapelketa Benta tabernan

Oraingoan ostegun gauetz antolatu dute txapelketa Benta tabernakoek. Urtarrilaren 30ean beraz, gaueko 22:00etan hasita.

Ohi bezala, lehen bikotesaikuentzako sariak izango dira.

### Otsailaren 3an zabalduko da matrikulazio kanpaina Udarregi ikastolan

Otsailaren 3tik 14ra luzatuko da 2014-15 ikasturteko matrikulazio kanpaina. Izen emateko hitzordua eskatu behar da, idazkaritzara deituta: 943 361 216. Argibide gehiago telefono zenbaki berean jaso ahal izango dira.

### Otsailaren 22an, 1956koen kinto afaria antolatu dute

Otsailaren 22rako antolatu dute otordua, Antxeta jatetxean. Izen emateko epea zabaldu dute, eta irekita egongo da afari bezperara arte, otsailaren 21era arte. Telefono zenbaki honetara deitu behar da: 648 755 316 (Guillermo Tapia).

# noa.ua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil  
943 360 321 /// elkarte@noa.ua.com /// www.noa.ua.com  
Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!

#### Elkarteko lehendakaria:

Ana Aizpurua.

**Aldizkariko koordinatzailea:**  
Imanol Ubeda.

**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.

**Publizitatea:** Bea Alda,

publizitatea@noa.ua.com.

**Diseinu berria:** Erroitz S. L.

#### Erredakzio kontseilua,

**erredakzioa@noa.ua.com:**

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte,  
Aizpea Aizpurua.

**Banaketa:** Olatz Rezola, Arantxa  
Zulaika.

**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria,  
Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria  
Jesus Urbieta, Maddi Galbete,  
Ana Urdangarin, Maddi Zaldua,  
Iñaki Larrañaga, Pako Agudo,  
Jon Etxabe, Alazne Begiristain,  
Denis Elortza, Pello Aranburu,  
Xabier Aranburu, Inma Balda,  
Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaitz Agirre,  
Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia  
Torregarai eta Udarregi ikastola.  
**Tirada:** 2.800 ale.  
**Lege-Gordailua:** SS-668-96  
**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu  
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

**HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Imanol Ubeda

## Ez daukat ikurrinik etxean

**N**ola ezduzula ikurrinik etxean? Motel, guk baditugu hiruzpalau. Hartuezazubatu!

Horixe erantzun zidan aitak. Harri-dura aurpegiarekin. Iragan Eguberrietan. Eta hain ondo ulertzen dut nire aita. Baina ez pentsa, duela gutxi jabetu naiz horretaz.

Gure adinekoak, ikurrinarekin jaio ginen. Arazorik gabe margotu dugu, nonahi ikusi dugu, eta guk ere, han hemenka haizatu dugu Tourrean edo atzerrian ibili izan garenean. Gure inguru hurbileko paisaiaren parte izan da. Betitik.

Gurasoek aldiz, artean gazte zirenean, izatekotan ezkutuan eduki behar zuten. Gaizki josi, tela zatiak askatu eta berriz josi, asmatu arte. Horrela ibiltzen ziren. Pentsa. Euskaldunon ikur izateaz gain, bazen askatasun ikur ere. Debekuen garai

hartan, ikurrina legeztatzeo eskatzea, askatasuna aldarrikatzea baitzen.

Hura poza, 1976ko abenduan Iribar eta Kortabarria ikurrina eskutian agertu zirenean, Atotxan. Etxekoak imaginatzen ditut, pozez zorutzen. Eurek pairatutako ukazioa amaitzeaz zela, eta gure belaunaldiarentzat, eta hurrengoentzat, argia iritsi zela azkenean. Askatasunean hazi eta heziko ginela. "Behingoz". "Bazen garaia". 40 urteko gau beltzaren ondoren iritsi zela argia herri honetara.

1977ko urtarrilaren 17an legeztatzen zen ikurrina. Aurreko astean jaso genuen orriotan, Usurbilgo une gogoangarri haren argazkia.

Ondorengo garaia, horiek hobeto ezagutu ditugu. Gauza batzuetan aurreratu da, dezente esango

nuke. Beste kontu potolo batzuetan, ordea, antzeko gabilta oraindik.

Eta bien bitartean, oso urte gogorak pasa ditugu. Sufrimendu gehiegi aukeran. Nire begiekin ikusi nuen, artean ume ginela, GALEk Hendaian erail zuen Goena gazte antimilitaristaren hilkutxa hilerrira bidean.

Nire begiekin ikusi nuen, artean gazte ginela, Atutxaren Ertzaintzak nola egurtzen zituen Lasa eta Zabalen senideak Tolosako hilerrian.

Nire begiekin ikusi nuen, artean helduxeago ginela, ETAk Joan Maria Jauregi sozialista Tolosako Frontonen erail zuenean Tolosaldean eragin zuen haserre.

Nire begiekin ere ikusi ditut beste begi batzuk, gatibu, hemendik ehunka kilometrora dagoen espetxean.

Eta maiz, aukeran gehiegitan, pairatu behar iza(te)n dugu polizia kontroletan segurtasun indarren inpunitea.

Nork bere mamuak, bere beldurak, bere korapiloak bizi ditu. Eta horiek dira niri iltzatuak geratu zaizkidanetako batzuk. Baina zorionez, hori ere atzean geratzeko zorian da. Hori pentsatu nahi nuke. 1976ko abenduan, gure gurasoen belaunaldiak izan zuen sentipen hori nahiko nuke izan nik ere. Alegia, "behingoz". "Bazen garaia". Urteotako liskaraldiaren ondoren, iritsiko dela argia Xune, Sara, Xuban, Uxue, Irati, Ander eta mundu hau edertzeraren etorri diren jaioberrientzat.

Aitari deituko diot oraintxe bertan. Ez dudala ipintzeko asmorik, baina baten bila pasako naizela igande goizean.

Aritz Gorriti | Luken Arkarazo | Idoia Torregarai | Luis Aranalde | Maialen Unanue | Joxe Piñas | **Imanol Ubeda** | Nerea Zinkunegi

## Gure Pakea Elkarteko batzarra, ostiral honetan

**U**rteroko batzar nagusia deitu du Gure Pakea Elkartek, ostiral honetarako, urtarrilaren 31rako. Deialdi bakarra egin du; arratsaldeko 16:30erako Artzabalgo areto nagusian. Bilkurarako honak gai zerrenda prestatu dute:

- 1-Lehendakariaren agurra.
- 2-Aurreko biltzar nagusiaren akta irakurtzea eta onartzea, hala badagokio.
- 3-2013ko memoria irakurtzea eta onartzea, hala badagokio.

4-Honako hauek irakurtzea eta onartzea, hala badagokio:

A-2013-12-31ko diru sarreren eta gastuen balantzea.

B-2013-12-31n itxikatu diru egoeraren balantzea.

5-2015ean batzordea berritzea egokitzen dela gogorarazi.

6-2014. urtean egin daitezkeen aktibitate berrien proposamenak.

7-Galde-erantzunak.

Deitzailea: Gure Pakea Elkarteko zuzendaritza batzordea.

### Bazkideen arteko txapelketak

Gure Pakea Elkartekoek batzar nagusiaren segidan ospatuko dituzte urtero moduan, bazkideen arteko txapelketak. Mahai joko eta mugimenduko honako saioak antolatu dituzte, otsailaren 11tik 20ra:

- Otsailak 11, asteartea: punttua.
- Otsailak 12, asteazkena: tutea.
- Otsailak 18, asteartea: musa.
- Otsailak 20, osteguna: igel eta toka jokoak. Sari banaketa eta askaria.

Txapelketa guztiok Artzabalen jokatuko dira, aipaturiko egunetan, arratsaldeko 16:00etan hasita.

### Izena eman behar da

Joko hauetan parte hartzeko, otsailaren 7ra arte eman ahal izango da izena Artzabalen. Txapelketak otsailaren 20an amaituko dira. Egundorretan, azken saioak jokatu ostean, sariak banatu eta askari eder bat dastatu ahal izango dute parte hartzaile guztiak.

Zuen publizitatea hemen

943 360 321

publizitatea@noaUA.com

**txirriStra**

TABERNA

-Plater konbinatuak  
-Ogitartekoak  
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

# “Hau da Usurbilgo sagardo berria”

Sagardodun edalontzia altxatuz, eta esku artean zuena Usurbilgo sagardo berria zela adieraziz, txotx denboraldi berria estreina-tu zuen iragan ostiralean Imanol Agirretxe Realeko futbol jokalaria, Saizar sagardotegian antolatu zuten inaugurazio ekitaldi berezian. Saioa, Xabi Solanok trikitia jotzen, Usurbilgo txistulariek musika jarri zioten dantzariaren aurreku batekin, eta Aitor Mendiluze eta Jexux Mari Irazu bertsolariekin girotu zuten. Baita bertaratu zirenen txaloe-kin ere. Dastatu ahalko dugun sagardo berria, oso fresko eta aromatikoa izango omen dela iragarri zuten. Agirretxek edandako lehen tragoaren segidan noski, Saizarrera gerturatu ziren herritarrak aurtengo sagardo berria dastatzeko, ilara luzea osatu zuten. Zabalik da beraz, txotx garai berria. Iragan ostiraleko inaugurazio ekitaldian, tartetxo bat lapurtu genion Agirretxeri.

**NOAUA! Trago eder batekin denboraldia inauguratzen lehena izan zara. Sagardo zalea al zara?**

**Imanol Agirretxe:** Usurbildarra izanik, sagardoa gustuko dut eta ahal dudanean edaten dut. Mahai bat ondo hornitzen du sagardo botila batek. Normalean sagardoa edatea gustuko dut.

**N. Txotx denboraldirako planik bai?**

**I. A.** Nahi baino gutxiago joaten naiz sagardotegietara. Baina gustuko dut bai. Egia esan, koadrilan bada sagardotegietara joateko ohitura. Gure lanbidea zein den ikusita ordea, kostatzen zaigu joatea, askotan asteburuetan partidak ditugulako. Baina astean zehar batzuetan gustuko dut sagardotegietara joatea. Lasai afaldu eta gozatzen dugu, bai sagardotegiko menuarekin, baita sagardoa edanez ere.

**N. Usurbilgo txotx denboraldia estreinatu duzu. Kanpotik inguruotako sagardotegietara datozei begira, zer du erakargarritik udal-erri honek?**

**I. A.** Kalitatezko sagardotegi asko. Sagardotegi asko ditugu, giro ona sortzen da normalean. Eta gero bai generoa, janari eta sagardo aldetik, beti dena



Imanol Agirretxe eta instituzioetako hainbat ordezkari Saizarren batu ziren pasa den ostiralean.

## IMANOL AGIRRETXE

**“Nahi baino gutxiago joaten naiz sagardotegietara. Baina gustuko dut bai. Mahai bat ondo hornitzen du sagardo botila batek”**

ona. Urtean sagardotegi batera baino gehiagotara joaten gara eta beti oso gustura irteten gara. Beraz, guk sagardotegietara joanez jarraituko dugu. Eta kanpotarrak ere Usurbila etortzera gonbidatzen ditugu.

**Erreserbak egiteko:**

- Aginaga: 943 36 67 10 // 943 37 06 68
- Aialde-Berri: 943 365 031.
- Arratzain: 943 366 663.
- Iruin: 943 361 229.
- Saizar: 943 37 39 95.
- Urdaira: 943 372 691.



Kalitatezko sagardotegi asko ditugula uste du Realeko jokalaria.

Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**

Javier Orbegozo  
·ITURGINTZA  
·GASA ·BEROKUNTZA  
659 602 789  
943 37 29 37  
Erreka-ixiki 13, 3.esk USURBIL

**JE JON ELORZA**  
IGELTSERITZA  
OROKORRA  
Obrak eta erreformak  
**661 804 688**  
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

# “Sentsibilitate guztien topagunea behar du izan Gure Esku Dago dinamikak”

**G**ure Esku Dago ekimenari hauspoa eman asmoz, lan talde bat osatu da Usurbilen. “Euskaldunon erabakitze eskubidearen alde herri aktibazioa eta atxikimendua lortzea” du helburu talde honek, ondoko elkarrizketan adierazi diguten moduan.

**NOAUA! Ekainaren 8an Durango eta Iruñea batu nahi da giza kate erraldoi batekin. Zeintzuk dira Gure Esku Dago ekimenaren helburuak?**

**Gure Esku Dago taldea.** Gure Esku Dago ekimena erabakitze eskubidearen alde Euskal Herrian lan egingo duen dinamika da. Euskaldunon erabakitze eskubidearen alde herri aktibazioa eta atxikimendua lortzea duena hasierako helburu. Erabakitzeko eskubidearen defentsa jardute demokratikoa da, Nazioarteko legerian jasota dagoena; horregatik, eskubide hori geurea dela exijitu behar dugu, nazioa garelako, erabakitzeko eskubidea daukagulako eta etorkizuna herri honetako herritarren esku dagoelako. Hala ere, azpimarratu beharra dugu ekainaren 8an egingo den giza katea erabakitze eskubidearen bidean lehen urratsa dela soilik, abiapuntua, eta hortik aurrerakoa erabakitze eskubidearen gauzatzea.

**N. Giza kate horretarako jendea sentsibilizatzea, beraz.**

Garrantzitsua da jendea sentsibilizatzea erabakitze eskubidea ez dela ideologia konkretu batengan aurkitzen den ideia soila, demokraziaren oinarrian dagoen herritar bakoitzaren eskubidea dela galdetua izatea, eta galdeketa horren emaitza errespetatua izatea, jakina.

**N. Gure Esku Dago taldea abiatu berria da Usurbilen.**



Gure Esku Dago ekimenak atxikimendu ugari eta askotarikoak jaso ditu orain arte.

## **GURE ESKU DAGO, USURBIL**

**“Lehen herri ekimena otsailaren 2an egingo dugu: eguerdiko 13:00ean “Baietz 400! erronka” Sutegi aurrean. Argazki erraldoia aterako dugu”**

### **Bilerak irekiak dira ezta?**

Sentsibilitate guztien topagunea behar du izan Gure Esku Dago dinamikak. Erabat herritarra izanik, eta oinarrian aniztasuna eta askotarikotasuna duenez, geroz eta jende gehiago biltzeak, dinamikak aniztetik eta askotarikotik gehiago izan dezan ahalbidetzen du. Potxoenean egiten ditugu bilera guztiak, ostiralak eta larunbatak txandakatuz, taldekide guztiak azaltzeko aukera izan dezaten. Hurrengo bilera ostiral honetan, hilak 31, 18:00etan Potxoenean izango da.

### **N. Nola parte hartu daiteke giza-kate horretan?**

“Gure Esku Bidea” giza-katea Durango-Iruña batzen dituen 123 kilometroko ibilbidea izango da. Usurbildarroi 90.

kilometroa betetzea egokitu zaigu, hau da, Uharte-Arakil herrian. Maiatzaren bukaera arte herriko hainbat puntutan egongo da izena emateko aukera, eta zenbait asteburutan informazio-mahai bat jarriko dugu. Aurrerago emango dugu xehetasun gehiagoren berri.

### **N. Herriz herri, hainbat ekitaldi eta ekimen burutzen ari dira. Usurbilen, zerbait aurreraterik bai?**

Pasa den urtarrilaren 18an Gasteizen “Eskutik eskura” ekimena aurkeztu zen. 10 astez eta 80 egunez, Euskal Herriaren etorkizuna libre eta demokratikoki erabakitzeko eskubidea gauzatzeko arrazoi ugari eta borondate sendoa dagoela haizeratuko da. Zehazki gure herrira otsailaren 10etik 16ra iritsiko da. Lasarte eta Usurbilen furgoneta bat ibiliko da, eta herrian hainbat ekimen burutuko dira, baita Lasartekoekin ekimen partekatu bat ere. Apirilaren 5ean emango zaio amaiera ekimen nazional honi, Bilbon egitea aurreikusten den beste ekitaldi nazional batean. Hala ere aipatu, honen aurretik, lehen herri ekimena otsailaren 2an

burutuko dugu Sutegi aurrean, eguerdiko 13:00etan: “Baietz 400! erronka”. Argazki erraldoia aterako da. Bertarazera gonbidatzen zaituztegu.

## **“Giza katearen parte izatera gonbidatu nahi ditugu herritarrak”**

**NOAUA! Amaitzeko, zerbait gehitu nahi?**

**Gure Esku Dago taldea.** Herritarrak gure dinamikan parte hartzeaz gain, familiak, lagun koadrilak ... Giza katearen parte izatera gonbidatu nahi ditugu, oso festa polita izango da. Bukatzeko, berri gehiago ditugun heinean jakinaraziko ditugu sare sozial, kultur agenda eta NOAUA! bidez, guztiok parte hartzeko aukera izan dezagun.



Potxoenean elkartuko dira ostiral honetan, 18:00etan.

## 2014rako udal aurrekontuak, behin betiko onartuak

Jendaurrean egon den epean erreklamazio edo oharrik aurkeztu ez denez, 2014rako udal aurrekontuak behin betiko onartuak geratu dira. Hala eman zuen argitara Usurbilgo Udalak, urtarillaren 23ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren bidez. 10.360.522 euro ditu Usurbilgo Udalak, estreinatuta berri dugun urte honi begirako egitasmo eta gastuetara bideratzeko:

### Sarrerren egoera

Zuzeneko zergak	2.865.500
Zeharkako zergak	105.000
Tasak eta bestelako sarrerak	2.129.340
Transferentzia arruntak	4.536.040
Ondareko sarrerak	16.400
Inbertsio errealak besterenganatzea	584.971
Kapital transferentziak	123.271
Guztira	10.360.522

### Gastuen egoera

Pertsonal gastuak	3.603.174
Ondasun arrunten erosketak	4.534.828
Finantza gastuak	30.000
Transferentzia arruntak	805.620
Inbertsio errealak	863.282
Kapital transferentziak	188.618
Pasibo finantzarioak	335.000
Guztira	10.360.522



Agerialdeko berritze-lanak egingo dira 2014ko udal aurrekontuekin.

### 2014ko Plantilla Organikoa ere, behin betiko onartua

2014rako udal aurrekontuak, abenduaren 17an burutu zen ezohiko osoko bilkuran onartu ziren. Gehiengo osoz, EH Bilduko udal ordezkarien aldeko bozkekin. EAJ-PNVko ordezkaria abstenitu zen. PSE-EE eta Hamaikabat udal taldeek aurka bozkatu zuten. Udal aurrekontuekin gertatu den moduan, jendaurrean egon den epean inork erreklamaziorik aurkeztu ez duenez, behin betiko onartuta geratu da baita 2014rako Plantilla Organikoa. 2014ko Plantilla Organikoa, hasieraz onartu zuen udalbatzak, iragan abenduaren 17an burutu zen ezohiko osoko bilkuran, gehiengo osoz. Alde, EH Bildu eta PSE-EE. Aurka, Hamaikabat. Abstentzioa, EAJ-PNV.

### Euskarazko zine zikloa, azken txanpan

Usurbilgo Udalak negu parterako antolatutako euskarazko zine zikloa amaierara heldu ari da. Martxoan eskainiko dira haur eta helduentzako azken bi filmak. Aurretik ordea, otsaileko hitzorduak ditugu. Igande honetan, otsailaren 2an proiektatuko dute etxeko txikienei zuzenduriko hurrengo ikus-entzunezkoa; "Malutatxo". Arratsaldeko 17:00etatik aurrera, Sutegi-ko auditorioan. Sarrerak egunean bertan jarriko dituzte salgai, 3 eurotan. Zooan adiskide berriak onartzeko gorila normala izan nahi du Malutatxok eta horregatik edabe magiko baten bila abiatuko da, Luz de Sac maltzurra atzetik segika duela. Hortxe hasten da protagonistaren izena izenburutzat daraman haurrei zuzenduriko filma.

Eta otsailaren 9an, Aizpea Goenagak zuzenduriko "Sukalde kontuak" komedia proiektatuko du Udalak helduentzat, iluntzeko 18:00etatik aurrera, Sutegin.



Igande honetan, 'Malutatxo' Sutegin.

### Bihurri ludoteka

Otsailaren 15ean amaituko da kuota ordaintzeko epea. 15 euro sartu behar dira kontu zenbaki honetan. 2095 5069 06 1063903578, Kutxa. Kontzeptuan izen-abizenak jarri eta ziurtagiria ludotekara eraman. Norbaitek lehen aldiz apuntatu nahi badu, "30 euroko ingresoa egin eta ziurtagiriarekin ludotekara azaldu dadila ostegunetan 16:45etik 17:45era". Ludotekan jarraitu behar ez duenak giltza entregatu dezala, hori ere eskatu dute Bihurriko kideek. bihurriludoteka@gmail.com

## Nerabeen sexualitateari buruzko ikastaroa

Astelehenaz gozotik zabalik dago, Sexu Aholkularitza Gunetik antolatuta duen ikastaro berri honetan izena emateko epea. Saioak, otsailaren 11, 18 eta 25ean izango dira, 17:30-19:30 artean Potxoenean. Elena Jimenez Sexu Aholkularitza Guneko arduradunak bideratuko duen ikastaroan apuntatzeko, idatzi [sexuaholku@usurbil.net](mailto:sexuaholku@usurbil.net) helbidera edo deitu 697 919 516, 943 377 110 telefono zenbakietara.

Gogoan izan bestalde, hamabostean behin irekitzen dutela aholkularitza zerbitzua. Hilabete bakoitzeko lehen, hirugarren, eta egongo balitz, bosgarren asteartean, 17:00etatik 19:00etara Gizarte Zerbitzuen egoitzan. Aholkularitza zerbitzura jotzeko hitzordua eskatu behar da aurrez, bideotatik: [sexuaholku@usurbil.net](mailto:sexuaholku@usurbil.net)  
679 919 516  
943 377 110

  
Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**

**Javier Orbegozo**  
·ITURGINTZA  
·GASA ·BEROKUNTZA  
659 602 789  
943 37 29 37  
Erreka-txiki 13, 3. esk USURBIL

**JE JON ELORZA**  
IGELTSERITZA  
OROKORRA  
Obrak eta erreformak  
**661 804 688**  
San Esteban 5, baxua USURBIL [jon.elorza@hotmail.com](mailto:jon.elorza@hotmail.com)

# Odolaren Mintzoak larunbat honetan aurkeztuko du bere lehen diskoa, gaztetxean

Zazpi urteko ibilbidean, hainbat kontzertu eskaini eta maketa bat argitara eman ondoren, lehen diskoa plazaratzeko aukera eskaini zien Oihuka diskoetxeak. Pasa den udazkenean aurkeztu zuten, hedabideen aurrean: "taldearen izen bera darama diskoak eta rock, metal, hard core kutsua du", Luken Arkarazok aditzaera eman zuenez.

Jokin Irastortza eta Txueka anaiak dira beste taldekideak. Guztiak gogotsu sumatu genituen diskoa aurkezteko Donostian eskaini zuten agerraldian: "gogoia ere bagenuen CD bat ateratzeko, behingoagatik", aitortu zuen Beñat Txuekak. Larunbat honetan aurkeztuko dute zuzenean, Usurbilgo gaztetxean, 23:30ean hasita. Malder taldea ere arituko da eurekin.



Kontzertua 23:30ean hasiko da. Malder taldea arituko da Odolaren Mintzoarekin batera, Usurbilgo gaztetxean.

Argazkia: [facebook.com/odolaren.mintzoa](https://www.facebook.com/odolaren.mintzoa)

# Eta otsailaren 16an, Joseba Tapia Sutegin

Gitarra bidelagun. Eta 1937an, Luis Rezola Tximelak Duesoko kartzelan idatzitakoak kantagai. Udazkenean plazaratu zuen disko berria Joseba Tapiak: "Tximela kapitainaren izarrak". Eta dagoeneko eman ditu hainbat kontzertu. Bi aste barru izango da gure artean.

Luis Rezola Tximelak 1937an Duesoko kartzelako egunerokoari buruz idatzitakoak kantatuko ditu Sutegin. NOAUA! Kultur Elkartearen eskutik arituko da, otsailaren 16an igandearrekin. 19:00etan hasiko da kontzertua. Sarrerak aldeztu aurretik erosi ahal izango dira, 6 eurotan (Txiribogan eta NOAUA!ko egoitzan). Egunean bertan ere salgai izango dira Sutegiko leihtilan, baina 8 eurotan.

NOAUA!ko bazkideek 5eurotan erosi ahal izango dute sarrera. Baina kasu honetan, soilik aldeztu aurretik eta soilik NOAUA!ko egoitzan.



Sarrerak aldeztu aurretik erosi ahal izango dira Txiribogan eta NOAUA!ko egoitzan. Argazkia: Kepa Gonzalez.



# Urte osoko egutegiaren berri eman du Andatza mendizale elkarteak

**Z**umaia-Orio arteko 14 kilometroko bidea osatzeko aukera proposatu dute Andatzakoek. Hiru ordu eta erdian egiteko modukoa izango dela ohartarazi dute. Otsailaren 9an, goizeko 8:00etarako abiatuko dira, tren geltokitik.

Zumaia-Orio artekoa izango da lehena. Baina azarora arte, beste hainbat txango ere aurreikusi dituzte, maiatzeko Andatza Egunarekin eta azaroko Mendi Astearekin batera. Pirinioak, Valderejo, Araotz... izango dira besteak beste, bisitatuko dituzten Euskal Herriko txokoak. Hona hemen, 2014rako aurreikusi dituzten txangoak. Egutegia behin behinekoa da:

**Otsailaren 9an, Zumaia-Orio**  
12 kilometroko bidea.



2014ko lehen irteera otsailaren 9an egingo dute: Zumaia-Orio, itsasoari begira.

**Martxoak 9 igandea:**  
Belate-Ararras.

**Apirilak 13 igandea:**  
Ararras-Azpiroz.

**Maiatzak 4 igandea:**  
Andatza Eguna.

**Ekainak 8 igandea:**  
Araotz.

**Uztailak 12-13 asteburua:**  
Pirinioetara irteera.

**Irailak 14 igandea:**  
Bidarra-Iparla-Izpegi.

**Urriak 12 igandea:**  
Valderejo.

**Azaroak 9 igandea:**  
Fitero.

**Azaroak 26-29:**  
Mendi Astea.

## Hotz gutxi eta giro beroa Irisasi BTT lasterketan



"Hotzak akabatzen" lemapean egin ohi da Irisasi BTT lasterketa. Aurten, ordea, hotza ez da traba izan. Eneko Sanchez eta Felix Aizpuruaren argazkiak dituzue hauek, hurrenez hurren. Argazki gehiago topatuko dituzue andatzamendizale.info web orrian edota QR kode honen bitartez.

# Zubieta bihotzean darama Bibik

**E**sana ziguten sasoiko dagoela, baina aurrez aurre ikustean, ez dirudi mendeurrena ospatu berri duenik. Semeetako baten etxean hartu gaitu, 67 urtez bizilagun izan dituen zubietarrek oparituriko belarritakoak jantzita dituela. Segituan aitortu digu bere sorterriko hizkeran, Zubietari eta zubietarrei zer nolako begirunea dien. Eta bertara itzultzeko gogoz dela, 2012tik Zubietatik kanpo, senideen etxean bizi baita. Estimatu du Zubieta, eta estimatua dute Zubietan, ehun urte bete dituen lerrootako protagonista; Alkortaeneako Bibi Atutxa.

Zubieta eta zubietar belau-naldi ezberdinek izandako bizimoduaren lekuko zuzena dugu Bibi. 1913ko abenduaren 19an Igorren jaioa, 34 urte zituela heldu zen Zubietako Alkortaeneara. Oso gustura eta inolako kexarik gabe bizi izan da bertan, elkarrizketan zehar NOAUA!ri maiz aipatu dion moduan.

Jakin mina genuen ehun eta bat urte betetzeko bidean den emakumea hain sasoiko egoteko, formula sekreturik ote duen. Berak ezetz dio, sekreturik ez duela aitortu digu, bere sekretu bakarra; bizi osoan zehar egin duen lan eskerga. “Lursail bat erosi genuen Zubietan. Baratza jarri genuen, eta Lasartera joaten nintzen barazkiekin. 108 oילו ere izan genituen. Bizimodua hala atera genuen aurrera, lan asko egin da. Ez naiz paseoan ibili, lan asko egindakoa naiz. Denek dakite Zubietan zenbat lan egin dugun”, azaldu digu Bibik.

Igandeetan hartzen omen zuten atsedenaldea, mezetara joan eta bizilagunekin egoteko tartea. “Jaietan mezetara joaten ginen eta lagun artean bueltatzen ginen. Joaten ginen baita umeeekin trenbidetik Amiriraino. Autorik eta ibiltzen ez ze-



Bibi Atutxa zubietarrak 100 urte bete ditu.

## BIBI ATUTXA

**“Lasartera joaten nintzen barazkiekin. Bizimodua hala atera genuen aurrera, lan asko egin da. Denek dakite Zubietan zenbat lan egin dugun”**

nez, errepidetik bueltatzen ginen. Horixe zen gure bizimodua”, Bibiren esanetan. Baina izaten zuten igandeetarako bestelako planik ere; hipodromo aldera joatea adibidez. “Jaiero joaten ginen zaldi lasterketak ikustera. Orduan jende elegantea etortzen zen”, oroitzen du.

## SORTERRITIK KANPORA, LAN KONTUENGATIK

Aisialdirako tarte hauek salbu, aipaturikoa, gogotik lan egin du Bibi senarrarekin. Baina pozik asko eta zoriontsu bizi izan da. Ingurukoekin armonia ederrean. “Bizilagun oso onak

izan ditut beti. Denekin oso ondo eraman izan naiz. Ez dut kexarik”, aipatu du Bibik.

Argi dago, bere momentuan Zubietara bizitzera etortzeko eginiko apustuarekin asmatu zuten. Lan kontuengatik, sorterria, Igorre atzean utzi eta bizimodu berri bati hasiera eman zion Bibik, bikote lagunarekin batera. “Senarra udaltzaina zen, Zubietara destinatua izan zen. Donostian bizitzen jartzeko esaten zidan, Alde Zaharrean bazirela etxeak. Nik ezetz, ez nintzela Donostiara joango. Ez nion baiezkoa eman eta gero Donostiara beragatik bizitzera joan nintzela esan nahi. Orduan Zubietara etorri ginen. 1947an Zubietara etorri eta etxea eman zigutenean ezkondu ginen eta bertan hezi genituen bi seme”, azaldu du Bibik.

## “NI POZIK NENGOEN”

Egungo bizimoduarekin antza gutxi zuen Zubieta ezagutu

zuten orduan. Baina gustura eta pozik, gogor lan eginez ekin zioten etapa berriari. Bibiren sorterrian ordea etxeak triste utzi omen zituen. “Bisitan sarri etortzen zirenean, ia nora etorri nintzen galdetzen zidaten, Bibi hemen takoidun zapatarik ezin duzu jarri eta ezin duzu inora atera” esaten omen zioten eta senideak negarrez itzultzen omen ziren etxera. Baina Bibik bestelako sentipena zuen Zubietan: “Ni pozik nengoen”.

Bibik etxekeengan utzitako hutsunea, senideekiko hartu emana salbatzen lagundu zuena, telefonoa izan zen. Zubietan hain zuzen, telefonoa lehenengoetarikoa jarri zuten bizilekuetakoa Bibirena izan zen. “Guraso eta anai-arrerekin telefonoz asko hitz egin nuen. Orduan gure etxera ere etortzen ziren telefonoz hitz egitera”, oroitzen du Atutxak.

# “Etxekoengan bakarrik ezin da pentsatu, baita gainerakoengan ere”

**B**i seme izan zituzten Bibik eta senarrak. Semeok, seme-ala-bak, eta hauen artean gurazorik ere bada jada egun. 100 urterekin berak azaldu digun moduan, birramona baita Bibi. Baina sasoiko jarraitzen du, “ondo nago” argi erakusten duen moduan. Bere atzetik beraz hiru belaunaldi ezagutzen ditu jada; semeak, bilobak eta birlobak. Eta antzekoa gertatu zaio lagun dituen zubietarrekin ere. Falta direnak gogoan ditu. Belaunaldi desberdinak jaio eta hazten ikusi ditu. Eta bera beti gazte sentitzen da, NOAUA!ri azaldu dion moduan, “nik ez dut pentsatzen zaharra naizenik”.

Belaunaldi berrien etorreraren lekukoa izan da Bibi, baita Zubietak izan duen eraldakuntzarena ere. “Lehen denak bizi ziren baserrian. Orain ia baserri guztiak itxita daude”, dio.

Lanerako jendea falta da



Zubietarren omenaldia jaso zuen Bibi Atutzak, 100 urte bete berritan.

## BIBI ATUTXA

**“Gazteak benetan ondo prestatuak daude eta lanik ez. Pena izugarria ematen dit”**

dioen moduan, txikitatik berak bizitakoarekin antzik ez.

“Gure aitak eta amak 13 seme-alaba baserritik aurrera atera zituzten. Lan eginda baina oso ondo bizi ginen”, oroitzen du.

## EGOERAREKIN, KEZKATUTA

Arduraz jarraitzen du egun bizi den egoera. “Gazteak benetan ondo prestatuak daude eta

lanik ez. Pena izugarria ematen dit”, adierazi du. Familiak zortea izan duela dio, ez duela langabeziak kolpatu.

Halere, garai zail hauek gairatu ahal izateko haratago begiratu beharra dagoela dio Bibik: “Etxekoengan bakarrik ezin da pentsatu, baita gainerakoengan ere”.

## “Zubietan oso ondo bizi izan naiz”

**B**ibik hunkituta azaldu dio NOAUA!ri, abenduaren 19an bete zuen 100. urtemuga nola ospatu duen. Ezustean harrapatu zuen, lagun eta senideek Zubietan prestatu zioten omenaldi hungigarri batekin. “Autotik jaistean a ze ezustekoa. Hainbeste jende ikusita hunkitu nintzen. Ez nuen pentsatzen hainbeste jende etorriko zenik”, zioen. Hasteko meza izan zuen Zubietako elizan, bilobetako batek ere aureskua dantzatu zion, eta ez zuten esku hutsik utzi; lore sorta ederra, koadro bat, NOAUA!rako elkarrizketa uanean jantzita zeraman belarrita-


ko pare... oparitu zizkioten Bibiri, bere esanetan, “gehiegi egin zidaten”.

Bibiren omenaldian parte hartu zuen Zubietako Herri Batzarrak, eta NOAUA!ra ere zorion mezua helarazi zuten. “Zorionak Bibi! Ez da gutxi horrenbeste urte eta horrela harrapatzea. Zorionak zubietar guztion partetik!”

Bazkari baten bueltan bildu zituen Bibik, lagunak eta senideak. Tartean, baita Igorretik etorritako anai-arrebak ere. Zaharrenak 95 urte omen ditu, gazteenak 80 urte betetzeke. Sasoiko hauek ere, antza, familiaratik datorkie. Haiek ere

Bibik jasotako zubietarren babesarekin hunkituta ziren. “Neure familiak esan zidan eskerrak emateko hain ondo errezibitu zituztelako. Oso pozik itzuli zirela, oso herritar sinpatikoak zaretela. Zebat lagun ditudan eta ez nagoela bakarrikikusizuten. Milesker denoi”. Garai batean Zubietara Bibi bisitatzera etortzen zirenean sentitzen zuten tristura iraganeko kontua da jada.

Bibik berak kutsaturiko zoriontasunari esker izango da neurri handi batean. Behin eta berriz nabarmendu baitu NOAUA!ri eskaini dion elkarrizketan. “Zubietan oso



Zarautzen bizi da gaur egun.

ondo bizi izan naiz. Lagun oso onak ditut”. Esker hitzak baino ez ditu herrikideentzat. “Zubietan kariñoa didatela ikusi dut. Oso ondo tratatu naute. Zubietarrei esan nahi nieke, ez naizela inoiz eurretaz ahaztuko. Milesker denoi”. Zorionak eta segi horrela Bibi!

# Kadete mutilen eskubaloia taldea, Gipuzkoako txapeldunorde



“Partida amaieran, izan genuen jokabide onagatik zoriondu gintuzten”. Hala azaldu digute eskubaloia taldeko ordezkariak.

**A**rriskatuta bakarrik irabazi edo gal liteke. Baina aurrez lanik egin gabe ezin arriskatzera heldu, kasu honetan, ezin lehiaren amaierara iritsi, Usurbil Kirol Elkarteko kadete mutilen gertatu zaien moduan. Denboraldian zehar osaturiko ibilbideak eraman zuen eskubaloia talde hau iragan igandean, Egia taldekoen aurkako Gipuzkoako Txapelketako finala jokatzera. Txapeldunorde amaitu dute, baina pozik burutu duten lanarekin, izan duten jarrearekin, eta egin duten ahaleginarekin. Orain Koparen bila doaz, Mikel Alzagarekin batera, kadete mutilen taldea zuzentzen duen Joxe Lorenoz NOAUA!ri adierazi dion moduan.

**NOAUA! Azaldu ezazu finalak eman zuena...**

**Joxe Lorenzo:** Motibazio askorekin hasi ginen. Bagenekien bi baja garrantzitsu genituela, baina jokalariek oso motibatua zeuden eta hasiera oso ona izan genuen. Neurketako lehen zatia bizpahiru golengatik galtzen gindoazen. Emaitzak orekatuta zeuden. Bigarren zatitik aurrera, bizpahi-

ru golen gorabeherarekin aritu ginen. Bigarren zatiko erdialdean hemezortzina berdindu genuen eta ordutik aurrera, aurkariak irabazi ziguten. Errekonozitu beharra dago, aurkariak gu baino hobeto aritu zirela. Maila tekniko eta taktikoan, talde mailan oso ondo lan egin zuten Usurbilgo jokalariek. Guztia eman zuten. Partida amaieran, izan genuen jokabide onagatik zoriondu gintuzten.

**Emaitzak alde batera utzita, balorazio positiboa beraz?**

Balorazio oso positiboa. Aurkariak aurre hartu ziguten. Baina gainerakoan oso pozik gaude, gogor lehiatu ginen.

**Partidaren biharamuna nolakoa izan da? Emaitzak daude bate-tik, baina bestetik finalera iristeko eginiko aurre lanketa?**

Hasieran pena pixka batekin ginen, irabazi genezakeelako. Entrenamendu eguna izan da biharamuna, jokalariek oso pozik eta motibatuta daude. Koparen zain orain. Hurrengo lehiaketaren zain. Maila tekniko eta

**JOXE LORENZO**

**“Emaitzen gaineratik dauden heziketa baloreak bultzatzen saiatzen gara”**

taktikoa asko lantzen ari gara, bana-ka eta taldean. Oinarrizko kirol maila denez, lehentasun handia ematen diogu jokalariek hezteari, bai kirol mailan, aurkariak, entrenatzaileak eta publikoa errespetatuz. Alde horretatik, denboraldian zehar ez dugu arazorik izan, ezta txartel gorri bakar bat ere. Emaitzen gaineratik dauden heziketa baloreak bultzatzen saiatzen gara.

**Oraingoz, kirol urte honek zer eman dio zuen taldeari?**

Bigarren urteko zazpi jokalariz eta lehen urteko zortzi jokalariz osaturiko taldearekin hasi genuen denboraldia. Beste taldeekiko desberdintasuna hor dago. Infantilak talde on batetik zetozen eta bigarren mailako jokalariek onekin bat eginda,

talde oso ona osatu dugu. Denboraldi honetan zehar, hiru neurketa baino ez ditugu galdu. Hiru neurketak, talde berdinen aurka. Teknikoki banaka eta talde mailan lan egin dugu. Oso giro ona dago. Jokalarien artean oso harreman ona dute, eta hori baloratzea da. Kirol mailan gorantz goaz. Lan aldetik, entrenamendu saioetako parte hartzea oso ona da. Horregatik jaso ditugu emaitza hauek. Gu baino hobekien dauden taldeak badirela? Agian bai. Baina eguneroko konstantzia eta borroka izan dugu, partidaz partida, bakar bat ere ez galtzeko. Eta honaino ailegatu gara. Gu baino talde hobekien egon daitezke, baina atzetik gelditu dira. Irabazi diegu. Hortik dator, entrenamendu saioetara etortzeak duen garrantzia. Eta hau irakasten saiatu gara. Gero igandeko partidaren motibazioa zegoen, garrantzitsua zen igandeko azterketa. Talde honekin, igandeko azterketa beti ondo ateratzen zaigu.

Gure helburua, aurkariak partida bat irabaztea zen, ez dugu lortu, baina euren mailan aritu gara.

# “Finalera heltzen ez direnek ez dute galtzeko arrisku hori”

**NOAUA! Tradizionalki, Usurbil Kirol Elkarteari poztasun ugari eman dion taldea da hau?**

**Joxe Lorenzo:** Bai. Talde hau, lehen eta bigarren urteko jokalariz osatua dago. Iazko taldea, iaz infantiletan jokatzen ari zirenak, txapelkun orde amaitu zuten. Bi mailetakojokalariai batuta, talde on bat osatu zitekeela aurreikusten genuen. Beti ere aintzakotzat hartuta, maila oneko hiriburu taldeekin lehiatu beharra zegoela. Baina helburua gainditu dugula uste dut.

**Orain orduan, Koparen bila?**

Hala da. Lehenik bi trofeo ditugu jokoan; Diputazio trofeoa, eta gero Kopa. Datorren urtean jubenilen taldea osatzeko asmoa dugu. Ia usurbildarrek osatu ahal dezakegun. Usurbildarrek animatu nahi genituzke, jubenilen taldea osatzeko. Egun, jubenilen taldea Urrietakoarekin fusionatua dago. Datorren urtean, ahal bada, kadete eta jubenilen talde bana osatu nahi genuke usurbildarrek.

**Interesdunek itxaron behar dute, edo zuekin entrenatzen hasi daitezke jada?**

Etor daitezela. Ahal edo nahi duenak, etor dadila entrenamendu saioetara, astelehen, asteazken eta ostiraletan 18:30etan. Usurbil Kirol Elkarteari harremanetan jarri eta edozein unetan etor daiteke. Gainerakoa oso gustura gaude. Poz handia ematen dute jokalariek. 14-15 urteko gazteak dira, entrenamendu saioetan, eskubaloia irakatsiz eta asko hitz eginda osatu dugu taldea. Askok ikasi dute.

Lehen helburua hori da, jokalariai



Senior taldeak ere goi postuetan dira. Eta horrela, “jende gehiago dator eta jende gehiagok ematen du izena”.

**JOXE LORENZO**

**“Lehen helburua hori da, jokalariai hezteak. Eta goiko mailako talderako prestatzea”**

hezteak eta goiko mailako talderako prestatzea.

Finalera heldu eta galdu dugula? Baina garrantzitsuena, finala galtzeko jokatu beharra dago. Jokalariai transmititu diegu finalak jokatzeko daudela, galdu edo irabazi litekeela, finalera heltzen denak arrisku hori duela. Baina finalera heltzen ez direnak ez dute arrisku hori.

**Eta heltzen direnak ere zerbaitegatik iritsiko dira?**

Hala da, denboraldi on bat egin dutelako. Denboraldi hasieran hori helarazi genuen. Hemen inork ez du ezer oparitzen. Astean hirutan entrenamendu saioek, lan fisiko, taktiko eta teknikoek baizik. Alde horretatik, egin

dugun lanarekin oso pozik gaude. Gainera, Euskadiko Selekzioaren parte hartu du jokalariai batek, Xabat Belokik. Mikel Atxega ere Selekzioarekin entrenatzen aritu da. Arrate, Bidasoa edo Zumaiarekin lehiatzen bi jokalariai izatea oso ondo dago.

**Selekzioa aipatu duzula, Usurbil KEko kide asko ari dira deitzen selekzioarako. Nola interpretatzen duzue zuek mugimendu hau?**

Oso lan ona egiten ari gara. Klubaren proiektioarako oso ona da hau. Hemen entrenatzeko lekua falta zaitugu. Klub honen oinarria, goiko taldeari begiratzea da. 2. nazional mailako taldea ondo badao, partida bakar bat galdu gabe, horrek herriko eskubaloian eragiten du. Jende gehiago dator, jende gehiagok ematen du izena.

Garrantzitsuena goiko taldeek, senior neskak edo mutilen taldeek ondo funtzionatzea da, klubaren irudi baitira. Orain arte bertan, bi taldeak sailkapenen lehenengo postuan dira.

**“Taldea honetan eta klubean oso ondo lan egiten ari gara”**

**NOAUA! Denboraldi bukaera on bat iragar dezakezu beraz?**

**Joxe Lorenzo:** Esperantza badugu behintzat.

**Emaitza hauen atzean beraz, neurri handi batean hezkuntza lana dagoela esango zenuke?**

Jokalariai zoriondu nahi genituzke, egiten ari diren lanarengatik, eta entrenamenduetan duten parte hartzeagatik, hori baita garrantzitsuena.

Eta gero, asko baloratzen dugu aurkariekiko dagoen errespetua, eta dugun kiroltasuna. Ez dugu txartel gorriarik, santziarik izan. Lehiatu beharra dago, gauza batek ez du bestea kentzen. Baina edonork ez du irabazten, lan egiten duenak irabazten du. Eta hemen talde honetan eta klubean oso ondo lan egiten ari gara. Belaunaldi oso onak ditugu denboraldi honetan.

Etorkezunera begira, ilusio asko dugu.

**50. urteurrena borobiltzeko ezin hobeto beraz?**

Esaten genuen, 50. urteurrenaren gure helburua erronka potolo bat betetzea zela. Senior taldea, 2. nazionaletik lehenengora igotzea adibidez. Bidean doaz. Oso kolpe ona litzateke denboraldia amaitzeko.

**LATAILLADE**  
  
**ITURGINTZA**  
 Gasak, berogintza, klimatizazioa, instalazioak eta mantenimendua  
 Aristitxo 8, behea 943 363 348 - 609 888 021

**EROSKI/city**  
 kale Nagusia 10, USURBIL  
 943 361 182

**JUANTXO BURDINDEGIA**  
 Zubiaurrenea 8  
 943 370 008

# Ia leku ezberdinetako kobazuloen izenak topatzen dituzuen

**AURKI ITZAZU LETRA-ZOPA HONETAN GURE INGURUKO HAINBAT HAITZULO EZAGUNEN IZENAK.**

**“Hizki zopa bat bidaltzen dizuegu, ea denak aurkitzen dituzuen!”**

**K**aixo lagunak! Lehen Mailan gaude eta gelan daukagun denboraren makinaren bidez Lehen gizakien garaira joan gara. Gauza asko ikasi eta ikusi ditugu. Nola bi-zi ziren? Nola egiten zuten ehiza? Eta badakizute zer asmatu zuten garai horretan? Ba, SUA.

Eta SUA animaliak uxatzeko, janaria berotzeko, kobazuloa argitzeko...erabiltzen zuten.

## LASTER MENDUKILORA JOANGO GARA

Gu saiatuko gara gelan bertan kobazulo bat egiten, espero dugu ederra izatea.

Han, lehen gizakiak egiten zuten bezala marratzuko di-

tugu mamutak, zaldiak, bisonteak, gure hatz markak... Eta laster Mendukilora joango gara benetako haitzulo bat ikustera, ea zer dagoen han bertan kontatuko dizuegu, bale?

Orain leku ezberdinetako kobazuloen izenen hizki zopa bat bidaltzen dizuegu, ea denak aurkitzen dituzuen!

## EPA-HHIn matrikulatzeko epea, zabalik

Lasarte-Usurbilgo EPA-HHiko matrikulazio epea zabalik dago. Graduatua ateratzeko ikasketak egin nahi dituztenek edo Lanbide Heziketako Goi Mailako sarbide probak prestatu nahi dituztenek matrikula daitezke. Aurrekoekin batera, beste ikasgaiak (ingelesa mintza praktikoa, informatika,...) egin nahi duena matrikula daitezke. Zehaztasun gehiago: [www.epalasarate.es](http://www.epalasarate.es)

## Astlehenean zabalduko da matrikulazioa Udarregi ikastolan

Otsailaren 3tik 14ra luzatuko da 2014-15 ikasturteko matrikulazio kanpaina. Izena emateko hitzordua eskatu behar da, idazkaritzara deituta: 943 361 216. Argibide gehiago telefono zenbaki berean jaso ahal izango dira.



Izena emateko hitzordua eskatu behar da 943 361 216 telefonoan.

## “Mila esker!”, Haur Eskolaren oharra

“Abenduaren 20an, Olentzero egunaren ospakizunean, giro ederra sortzen lagundu zeniguten guztiei eskerrak eman nahi dizkizuegu!

Urdaira Sagardotegiari, Usurbilgo Udala eta brigadari, Ikastolako lankideei, Aitzaga Elkarteari, Noaua-ri, Haur Eskolako guraso eta hezitzaileei, Olentzerori, Mari Domingiri, Kottonio astoaren jabe eta zaintzaileei, trikitilariei, Susiri... eta bertaratutako guztiei! Eskerrik asko deniei!

Usurbilgo Udarregi Haur Eskola”

## Hainbat herritar izango dira Altitoy eski zeharkaldi ospetsuan

**D**atorren asteburuan, mendi eskiko proba ederrenetako bat egingo da: Altitoy ize-  
nekoa, Pirineotako Luz st Sauveur eta Bare-  
ges herrietan barrena. Urtez urte, partaidetzak  
gora egin du eta aurten, inoiz baino usurbildar  
gehiago animatu dira. Bikoteka egiten den zehar-  
kaldi honetan, hauek dira animatu direnak: Jon  
Rekondo, Iñaki Rekondo, Andoni Udabe, Imanol  
Zarautz, Patxi Pagola eta Harkaitz Iparragirre.

Pirineotan egiten den mendi eskiko probarik  
herrikoiena da Altitoy. Zazpigarren edizioa bete-  
ko du aurten, eta ohi bezala, Frantziako Luz eta  
Bareges herri inguruetan egingo da eski proba.

Aurten Pic de Midi de Bigorre 2.877m tonto-  
rretik pasatzeko asmoa dute antolatzaileek ibil-  
bide teknikoetatik mendiko kondizioek horrela  
uzten badute. Baldintzak egokiak badira, beraz,  
Pic de Midi de Bigorre 2.877m tontorretik igaro  
beharko dute.

### Bi ibilbide

Baina aukeran, bi izango dira aukeran osatu  
beharko diren ibilbideak:

A ibilbideak 2.500m desnibela edukiko du, eta  
otsailaren 8an larunbata egingo da. Eta 2.000m,  
igandekoak.

B ibilbidean berriz 1.300m gainditu beharko  
dituzte larunbatean zein igandean.

Kontuan izan binakako proba dela hauxe. Aur-  
ten inoiz baino usurbildar gehiago animatu dira.  
Lau bikote hauek izango dira Altitoy proban. Jon  
Rekondo-Iñaki Rekondo, Andoni Udabe-Imanol  
Zarautz, Egoitz Manterola (Orio)-Patxi Pagola, Har-



Eski proba hau binaka egiten da.

**“Jon Rekondo-Iñaki Rekondo,  
Andoni Udabe-Imanol Zarautz,  
Egoitz Manterola (Orio)-Patxi  
Pagola eta Harkaitz Iparragirre-  
Mikel Legarreta (Urnieta) bikoteek  
eman dute izena”**

kaitz Iparragirre-Mikel Legarreta (Urnieta).

Ea eguraldia lagun duten eta behar bezala goza-  
tzeko aukera duten. Informazio gehiago webgu-  
ne honetan: <http://altitoy-ternua.com>

### Omenaldia, proba hasieran

Aurtengo proba berezia izango da Altitoyko  
zuzendari zen Andoni Areizaga eta beste hiru lagun  
(partehartzaile eta antolatzaileak) auto istripuz  
hil baitziren iragan urrian. Omenaldia jasoko  
dute proban bertan.

## Pilota eta paleta partidak asteburu honetan

**Urtarrilak 31 ostirala, Aginagan, 20:00h**

**Eskuz binaka infantil 1. maila**

USURBIL - ZIOTZA 1

(Imanol Galarraga-Aitor Aranguren) (Zizurkil)

**Paleta goma gizonezkoak 1. maila**

USURBIL 1 - ALTZA

(Imanol Esnaola-Jon Olaizola)

**Otsailak 2 igandea, Usurbilen, 12:00h,**

**Eskuz binaka nagusiak 3. maila**

USURBIL - HERNANI

(Bengoetxea-Gesalaga)

**Eskuz binaka nagusiak 1. maila**

USURBIL - ZIOTZA

(Kina-Katalina) (Zizurkil)

## Futbola Haranen

**Otsailak 1, larunbata**

9:15 Benjamínen topaketa.

10:00 Areto futbola:

Usurbil F.T.-Arizmendi-Eskoriatza.

11:00 Alebin neskek: Udarregi 6B-Urnieta B

11:00 Alebin neskek: Udarregi 5B-Urnieta 5B

15:30 Jubenil mutilak: Usurbil FT-Hernani

17:30 Neskek: Usurbil FT-Ilintxa SD

## Eskubaloia Oiardon

**Otsailak 1, larunbata**

Otsailak 1, larunbata

11:30 Infantil neskek:

Udarregi C Usurbil-Ereintza B

12:45 Senior neskek:

Usurbil K.E.-Urnieta London School

16:00 Kadete neskek:

Usurbil K.E.-Talai-pe Jatetxea Pulpo

17:30 Jubenil neskek:

Usurbil K.E.-Galdona Burdindegia Pulpo

19:15 Senior mutilak, 1. territoriala:

Usurbil K.E.-Gabaz Elgoibar

**Otsailak 2, igandea**

9:00-10:30 Gipuzkoako Selekzioaren kontzen-  
trazioa Usurbilen. **Koldo Diaz, Julen Naza-  
bal, Haritz Rekondo eta Jon Uli** infanti-  
lak deitu dituzte.

11:45 Urnietan, Gipuzkoako Selekzioaren  
entrenamendua. **Eider Makazaga** kadetea  
deitu dute.

## Euskal Herriko VI. Mus Txapelketa

Larunbat honetan, otsailak 1, arratsaldeko  
16:00etatik aurrera Aitzaga Elkartearen. Biko-  
teko 20 euro ordainduta parte hartu ahal  
izango da. 15:30ean irekiko dute izen ema-  
tea. Larunbateko saioan hautatuko dira, otsai-  
laren 15ean Orion jokatu den herrialde maila-  
lako kanporaketa saiorako sailkatuko diren  
bikoteak. Final nazionala berriz, martxoaren  
8an, Heletan (Behe Nafarroa). Informazio  
gehiago: [www.ehmus.org](http://www.ehmus.org)

**Patri Jatetxea**

K/nagusia 14. © 943 362 725

**izagirre**

**ELEKTRIZITATEA**

943 36 50 95-609 06 81 11  
izagirreletrizitate@hotmail.com  
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

**Otar-Goxo**

*Elkargaiak*

Zubiaurrenea, nº2  
☎ 943 36 55 81  
20170 Usurbil

**TAXI 24h**

Jose Etxabe USURBIL

677 37 34 66  
943 36 21 78





rrak ematen ditut 672 427 870. Goi mailako ingeneritza ikaske- tak egin ditut.

Euskara klaseak ematen ditut. Euskal filologian lizentziatua eta irakaskuntzan esperientziadu- na. Haur eta gazteentzako kla- seak. Azterketen prestaketa (EGA, HARE, IVAP, IRALE). 653 710 073

Neska euskalduna, 47 urte ditut. Geriatriako titulua dut eta arra- tsaldetan jendea zaintzeko prest nago. 618 558 842

Usurbilgo neska gazte ardura- duna, arratsaldeetan 6-12 urte- tako meeei, inglesa irakasteko prest, baita etxeko lanak egiten laguntzeko. Esperientzia. Preziosa adostuko da: 684092731

Esperientzia haurrak zaintzen, Udajolasako begirale eta haur hezkuntzako ikasketekin. 661 626 500 (Maialen).

Neska gazte esperientziaduna, akademian lan egindakoa, LH 1. mailatik Batxilergoko 2. maila- ra arteko ikasleei klaseak ema- teko prest. 685 772 602 (Nerea)

24 urteko mutil bat eskaintzen da LH-ko eta DBH-ko klase par- tikularrak emateko. 636601644

Matematika klaseak, maila guz- tietan, 19 urtetako esperientzia, 646717676

Neska gazte esperientziaduna, heziketa premia bereziak ditud- zen ikasleei klase partikularrak emateko prest. 688 661 997 (Garbiñe).

Neska gazte bat eskaintzen da umeak zaindu eta klase parti- kularrak emateko. Telefonoa: 660 778 314 (Maddi)

21 urteko neska usurbildar eus- kalduna, haurrak zaindu edo- ta klase partikularrak emateko LH-n DBH-n. Esperientziaduna. 666 041 971 (Ane)

Jardineritzako lanak egiten ditut txukun eta modu onean: 677 443 140 (Iñaki).

18 urteko mutil bat lanerako prest. Baratzean laguntzeko, morroi lanetarako, tabernan lan egiteko... 626 735 354.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 636929990.

Helduak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Orduka edo inter- na moduan. 608 774 999.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. Telefono zen- bakia: 609 632 030.

Zerbitzari edo sukaldari lagun- tzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.

Esperientzia handia, arduratsua den neska eskaintzen da garbi- keta lanetarako. 618 030 296.

Ontziak garbitzeko edo sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. 677 108 568

Emakume esperientziadun bat umeak edo pertsona helduak zaindu eta etxeko lanak egite- ko. Claudia. 663 117 579.

Gizonezko bat eskaintzen da, jatorriz euskalduna, edozein lanetarako. Helduak zaindu, sukaldean lagundu edo baserri- ko lanetan aritzeko. 627 206 451.

Emakume bat eskaintzen da egu- nez, adineko pertsonak umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko, ostalaritzarako eta garbiketaregi- teko. 673 445 903

Emakumea eskaintzen da, ordu- ka etxeko lanak egiteko. 662 247 324

Lan eskaintzak

Emakume autonomo bat behar da Usurbilgo elkarte bat garbitzeko. 943 36 27 24 (Hitzorduak aste- hetetan 18:00-20:00)

Estetizien bat behar da Usurbilen lan egiteko, tel 943 37 19 71

Emakume euskaldun eta espe- rientziaduna behar da Astigarragan, 6 hilabeteko haur txiki bat zain- tzeko eta etxeko lanak egiteko. Goi- zez, astelehenetik ostiralera. 635742503

Emakume bat zaindu eta etxeko lanarekin dituen interna behar dugu. Arduratsua den adineko emakume euskalduna hobestuko da. 943 300518 (M<sup>o</sup> Angeles)

BESTELAKOAK

Euskal Herriko mapa duen domina lauburu batekin aurkitu da eliza ingu- ruan. Urrezkoa da. Arantxa 2005- 9-9 jartzen du. Norbaitek galdu badu pasa NOAUAItik pasa.

Behor batsalgai. Zaldiz ibiltzen ikas- teko oso ona, paseotarako zein kiro- lerako. Deitu eta ikustera etorri: 620011889.

Iphone 5 telefono mugikorra gal- du nuen Eguberrietan. Topatu badu- zu, deitu 943 36 11 15 telefonora.

Donostiako Jesuitinas Ikastola (Aye- te), beren haurrak dituztenen gura- soekin hitz egin nahi genuke infor- mazio pixka bat jasotzeko. Harre- manetarako: 678708095 (Beñat)

Mahaspildegiko elkartearen bazkide pla- za bat salgai. Interesa baduzu dei- tu: 637 413 691 Juanjo

Valenciako mandarina ekologiko- ak salgai. 1€ kiloak. Bitartekari rikgabe. Tel. 637 929 093.

Katu beltza eta txuria galdu da herrian, "Txalaka" frutadenda ingu- ruan. Pottolo xamarra dago. Nor- baitek aurkitu badu, deitu: 605 752 667. Saria emango da.

Baserri edo borda bat nahi genuke alokatu edo alokairuaren bidez ero- si. Oiloak, pottokak eta baratza ditugu, beraz hektarea bat gutxienez behar dugu. Miren: 656742048; Alaitz: 658724075

Hemengo, Kiwiak eta babarrunak salgai. Tel. 943 364 937.

Baserri bat eskaintzen da konpon- du eta negozio bat jartzeko Lasar- te inguruan. Tel. 626 728 463.

Josteko bi makina salgai. 943363201.

Indukziozko suasalgai. Bi urteditu eta baldintza onetan dago. 943 361 109.

Zubietan 10.000 m. baino gehia- goko lursail bat alokatuko nuke. 635729637

Izotzetan ibiltzeko patinak salgai. 35 - 38 tilla, merkeak. 649 482 775.

Ohe altu bat salgai. Mutilena eta koloretua. Tel. 649 482 775.

Aurtengo eta hemengo babarrun- ak salgai, artoarekin batera egin- da. 637974994

Telebista salgai, Sony, Egoera one- an, 80 euro. 653 014518

Aginagako artoa salgai. Telefo- noa: 687706363

Erosi gasolina sorgailu elektri- koa, berria erabili gabe, 80 euro. 689880561

Hemengo intxaurra erosiko nuke, deitu 634 409 888

Ezkontzetan, festetan edo anto- latzen dituzuen ospakizunetara- ko Dj lanak egiteko prest. 615 713 204 edo djlarra@usurbil.com

Su egurra salgai. Haitza eta Pagoa. 667 232 300.

Artzai txakurkumeak Orbea arrazakoak salgai 637 974 994

Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi? 665 745 071 (Iñaki).

Ezkontza zein ekitaldietan abes- teko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, pati- neteak, liburuak... Garbigune- an. Doan hartu daitezke. Aste- lehendetik ostiralera: 10:15- 13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbata- tan: 9:00-13:00 artean.

Telefono interesgarriak

- Udala ... 943 371 951
Atez ateko bulegoa ... 900 776 776
Udaltzaingoa ... 943 361 112
Udal zerbitzuak (Brigada) ... 943 370 148
Sexu Aholkularitza Gunea ... 697 919 516
Gizarte Zerbitzuak ... 943 377 110
Diputazioa - Basetxea ... 943 361 215
Bake Epaitegia ... 943 372 336
Udarregi Ikastola ... 943 361 216
Haur Eskola ... 943 374 061
Zubietako Lanbide Eskola ... 943 364 600
Zubietako Herri Batzarra ... 943 372 077
Hastapen tailerrak ... 943 360 465
KZgunea ... 943 023 684
Oiardo Kirolegia ... 943 372 498
Sutegi Udal Liburutegia ... 943 360 692
Zumarte Musika Eskola ... 943 371 594
Etumeta AEK Euskaltegia ... 607 609 379
Kalezar Eguneko Zentroa ... 943 365 249
Gure Pakea Zahar Egoitza ... 943 368 770
Gure Elkarte Zahar Egoitza ... 943 371 751
Arrate Zahar Egoitza ... 943 366 340
Usurbilgo Salbatore Parrokia ... 943 361 239
NOAUA! Kultur Elkarte ... 943 360 321
Abere-Landare Babeslea ... 943 376 650
Taxia (Angel) ... 607 928 770
Taxia (Joxe Kruz) ... 677 373 466
Eusko Tren ... 943 470 976
LurraldeBus ... 943 000 117
Korrees - posta zerbitzua ... 943 362 894
Anbulategia ... 943 362 013
Oa botika ... 943 376 076
Iturralde botika ... 943 363 395
DYA ... 943 464 622
Gurutze Gorria ... 943 272 222
Emergentziak ... 112
Genero-indarkeria, arreta ... 900 840 111 / 016
Gonzalez Ehorztxea ... 943 362 163
Gipuzkoa Donostia Kutxa ... 943 361 202
Euskadiko Kutxa-Laborala ... 943 364 740
Banco Guipuzcoano ... 943 370 006
Banco Popular Español ... 943 370 411
BBVA ... 943 377 155
Caja Rural Kutxa ... 943 368 842
Argindarra - Iberdrola ... 901 202 020
Gas naturala - Naturgas ... 902 123 456
Telefonica ... 1004
Euskaltel ... 900 840 840

Goardiako farmaziak urtarrilak 30-otsailak 9

Table with 3 columns: Day (30, 31, 1, 2, 3, 4, 5), Pharmacy Name (GIL, ACHA-ORBEA, RODRIGUEZ, RODRIGUEZ, URBISTONDO, GANDARIAS-URIBE, ORUE), and Address (Kale Nagusia 24. Lasarte, Hipodromo etor. 6. Lasarte, K. Nagusia 42 Lasarte, K. Nagusia 42 Lasarte, San Franzisko 1 Lasarte, Iñigo Loiola kalea, 9 Lasarte, Jaizkibel 2. Lasarte)

Table with 3 columns: Day (6, 7, 8, 9), Pharmacy Name (DE MIGUEL, RODRIGUEZ, GIL, GIL), and Address (Kale Nagusia 32 Lasarte, K. Nagusia 42 Lasarte, Kale Nagusia 24. Lasarte, Kale Nagusia 24. Lasarte)

\* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ Garikoitz Aldabe. Perkaiztegikalea 8 (Antziola). Hernani. 943 336 022 22:00 - 09:00

# Agenda

urtarrila / otsaila

## 31 ostirala

- **Gure Pakea Elkartearen batzarra** 16:30ean Artzabalen.
- **Santa Agedako entsegua** 19:00etan Zubietako Kaxkapen.
- **Azken ostiraleko elkarretaratzea** 20:00etan hasita Mikel Laboa plazan.

## 1 larunbata

- **Euskal Herriko VI. Mus Txapelketako lehen kanporaketa.** 16:00etan Aitzaga elkarrean. Izen-ematea, 15:30etik aurrera.
- **Odolaren Mintzoa, Malder.** 23:30ean kontzertua, Usurbilgo gaztetxean.

## 2 igandea

- **XII. Tipi-Tapa** Txapeldun, Artzabal, Xarma, Bordatxo, Txirristra, Aitzaga eta Txiriboga tabernetan. 15:00etan zozketa Artzabalen.
- **"Malutatxo" gaztetxoentzat zinea Sutegin.** 17:00etan. 3 euro, egunean bertan salgai.

## Kopla zaharrak abesteko ordua

**M**akilak eskutan hartu, eta egoki jantzita kalera ateratzeko gonbita luzatzen zaie Santa Ageda bezperan, otsailaren 4a, asteartez oraingoan. Gazte, eta heldu, belau-naldi ezberdinak ikusiko ditugu usadio zahar hau berritzen. Ikasleak bazkalostean, eta herritarrak zenbait eragilek iluntze partetik aurrera deituriko hitzorduotan:

### Otsailak 4, asteartea

- 15:00-16:30 Udarregi Ikastolako LH eta DBH-koen kalejira. Antolatzailea: Udarregi Ikastola.
- 18:30 Kantu eskea Usurbilen, bertsolari eta trikitilariak lagunduta. Makila eskuetan eta egoki jantzita agertzea eskatzen da. Antolatzailea: Kantu Taldea.
- Iluntzean, kantu eskea Zubietan. 18:30ean, Kaxkapetik. Antolatzailea: Zubietan Lantzen.



Udarregiko ikasleak eguerdi partean ibiliko dira kalejiran.

### Entsegua Zubietan

Otsailaren 4an kantu eskean ateratzeko entsegua saioa deitu du Zubietan Lantzenek, ostiral honetarako, urtarrilaren 31rako, iluntzeko 19:00etan, Zubietako frontoi atzealdean, Kaxkape egoitzan.

## Muskuiluak, igande honetako Tipi-Tapako produktu izarra

Ohi bezala, edatekoarekin batera zerbitzatuko dituzte muskuiludun zizka-mizka bereziak, 2 euroren truke. Ez ahaztu Tipi-Tapa txartela hartzeaz. Zazpi tabernetako zigiluak eskuratu eta igandean arratsaldeko 15:00etan, oraingoan Artzabalen ospatuko den 150 euroko erosketa balearen zozketan parte hartu ahalko duzue eta. Diru kopuru hau egokitzen zaionak, saria Hurbilago Elkarte estabiezimenduetan xahutu ahal izango du. Artzabal, Txapeldun, Xarma, Txirristra, Txiriboga, Aitzaga eta Bordatxo, Tipi-Taparen edizio berrirako prest dira.



'Tipi-Tapa' ibiltzeko: Artzabal, Txapeldun, Xarma, Txirristra, Txiriboga, Aitzaga eta Bordatxo.

## Datozenak

### Afari beganoa eta bakarrizketa saioa, gaztetxean

Otsaila behar bezala estreinatzeko, otordu goxo goxo dastatzeko eta barre pixka bat egiteko gonbita luzatzen du Usurbilgo gazte Asanbladak. Bi proposamen dituzte datorenen asterako. Batetik, hileroko afari beganoa borondatearen truke, oraingoan, otsailaren 6an, ostegun iluntzeko 20:30etatik aurrera Usurbilgo gaztetxean.

### Umorezko bakarrizketa, igande honetan

Eta leku berean baina igande honetan, iluntzeko 19:00etan hasita, Aitor Navarrok bere bizi esperientzietan oinarrituriko umorezko bakarrizketa saioez (erdaraz) gozatu ahal izango da. Sarrera: 3 euro.

### "Sukalde kontuak" pelikula Sutegin

Otsailaren 9an igandea, "Sukalde kontuak" emango dute Sutegin, 18:00etan. Sarrera 5 euro.





# Kima

MASAJE LEKUA

· KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA  
· KOLONAREN HIDROTERAPIA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

## USURBIL AUTOAK

· TAILERRA · KARROZERIA · KOTXEEN SÄLMENTA



SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!!!

zerbitzu ofiziala

Zumartegi industrialdea

943 36 10 79

# AGINAGAKO Herri Eskola

## Eskola bizirik, Agiña bizirik!



• 2-12 urte bitartekoentzat euskarazko irakaskuntza eskaintza zabala doan: ingelesa 3 urtetik aurrera, musika, internet gela guztietan, heziketa bereziko irakasle espezializatuen zerbitzua...

• Jantoki zerbitzua.

• Eskola-txikien artean koordinatutako proiektu konstruktibismoan oinarrituz.

• Eskola-txikien arteko elkarbizitza: irteerak, antzerkiak, kirola...

• Eskola orduz kanpoko kirola.

• Goizeko gela.

**Izena emateko epea:**

**otsailaren 3tik  
otsailaren 14ra**

**9:30etik-16:30tara**



Usurbilgo Udala

AGINAGA  
HERRI ESKOLA  
Usurbil

**baikara**  
Gipuzkoako Ikasleen  
Gurasoen Federazioa

**AGINAGAKO HERRI IKASTETXEA**

Erriberako Kalea 7

20170 AGINAGA

Tel. 943 372044

Faxa: 943 372044

012261aa@hezkuntza.net

# UDARREGI IKASTOLA



*Udarregi ikastolak zera eskeintzen dizuete:*

- 0 urtetik 16 urte bitarteko irakaskuntza arautua.
- Heziketa euskalduna: euskaraz ikasi eta bizi, eta Euskal Herriko Kultura eta herri-ekintzetan murgildua dagoena.
- Balore eta jarreraren lanketa, heziketaren ardatz gisa.
- Irakaskuntza Eleanitza: D eredu; ingelesa 4 urtetik aurrera; gaztelera Lehen Hezkuntzaren 3. mailatik aurrera eta frantsesa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.
- Orientazio Departamendua: tutoretza eta banakako orientazioa. Orientazioa gurasoentzat.
- Heziketa Behar Bereziak dituztenentzat Laguntza Gela.
- Hizkuntzetarako irakasle espezialistak.
- Informazio eta Komunikazio-Teknologiak: Informatika, Internet eta Ikus-entzunezkoak.
- Garraioa auzo guztietara.
- Jangela: dieta orekatuak eta osatuak. Haur Eskola (0 - 3) janari ekologikoa.
- Ikasleen Goizeko Zaintza: 08:00etatik 09:00etara.
- Eskolaz kanpoko jarduerak: kirolak, dantza.

*46 urteko esperientzia Usurbilen.*

**Matrikulatzeko epea (3 urtetik-16 urtera)**  
Otsailaren 3tik otsailaren 14ra (biak barne)

**HAUR HEZKUNTZA: 3 - 6**

**LEHEN HEZKUNTZA: 6 - 12**

**DBH: 12 - 16**



**943 361 216**

**Udarregi Ikastola**

Gernika ibilbidea, USURBIL

[www.udarregi.com](http://www.udarregi.com)

[www.udarregi.mundua.com](http://www.udarregi.mundua.com)